

GERHARD BÄHR-EN *BASKISCH UND IBERISCH* TESIAZ

96-06-24

Joakin Gorrotxategi

Gerhard Bähr-en heriotzaren 50. urteurrena dela eta, Legazpiko Udalak mahainguru batera gonbidatu ninduenean bertan haren tesiaren garrantzia azter eta azal nezan, gustora onartu nuen gonbitea, Bähr-en obrarekiko nuen zorra erakusteko aukera ona ematen zitzaidalako. Euskal herrian gehienek, normala denez, haren euskal lanak eta ikerketak ezagutzen dituzte gehienbat. Nik, ostera, G. Bähr-en berri bere tesiari esker izan nuen neure ikerlanetan hasi nintzanean, eta askoz ere berandu arte ez nintzen jabetu hark euskal dialektologian egin zuen lanaz. Esan dezaket, bada, Bähr eta bere obraren ezaguera kontu honetan kanpotarrekin batera ibili naizela euskaldunekin batera baino, zeren haiek bakarrik bere tesia ezagutzen zuten eta gure herritarrek euskararekiko obra.

Zatiketa honen arrazoa —banaketa osagarri baten antza duen zatiketaren arrazoa— oso sinplea da: hizkuntzan datza, eta ez gaian, zeren *Baskisch und Iberisch* izendaturiko tesian euskararen historiaurrea —eta arlo horretan ikutu daitezkeen gai interesagarri asko— tratatzen zuen, baina alemanieraz hain zuzen. Gotingako unibertsitatean aurkeztu zuen ikerlan bat izan zen, hango unibertsital tradizioan idatzia eta Alemaniako akademi munduan kokatzen zena. Euskara zuen idatzgai, edo zehatzago esate arren, euskarak iberierarekiko dituen ustezko antzak edo parekotasunak zituen aztergai, baina gai hori ez zuen gure tradizioan erabiliak ziren metodoekin aztertu, baizik eta alemanek XIX. mendean zehar Humboldt, Hübner eta H. Schuchardt-en obretan ikasi zituztenekin. Iturri horietan edan du Bähr-ek eta tradizio horretan bilatu behar da obrari darion sendotasun kutsuaren funtsa.

Ezer baino lehen, esan behar da haren tesia dela emazurtz, postumoa, egilea hilez gero sortua. Karl Bouda hizkuntzalari ezagunak publikatu zion *Eusko Jakintza* aldizkarian 1947.an. Hurrengo urtean liburu gisa atera zuten eta hori da, hain zuzen ere, gehienok erabili dugun edizioa. Karl Boudak obrari egin zion hitzurrean azaltzen digu zer nolako bihurbideak eta ezbeharrak jasan behar izan zituen eskuizkribuak egilearen heriotzaren, edo hobeto esanda, desagertzearen ondoren. Ez gara euskalzale honen heriotzaren inguruan oraindik ere ilun dirauten puntuetan arituko. Boudak berak ez zuen asko argitu eta nik dakidanez inork ere ez du gai hori gehiago aztertu.

K. Bouda bat-batean ohartu zen eskutartean zeukan liburutto haren garrantziaz, eta argi eta garbi azpimarratzen du aipatutako hitzaurre horretan. Obraren muina zein den hitz gutxitan esan behar bada, hobe dugu hona aldatzea K. Boudak berak diona: “laburtuz, ondorio honetara heltzen da [egilea]: euskara hizkuntza isolatutzat eman behar dela” [1-2 or.]. Egin dezagun kontu Bähr-en garaian ia guztiak euskara eta iberieraren arteko ahaidetasuna edo parenteskoa aitortzen zutela. Kontu hau urrutitik zetorren sinismena zen, gure artean apologistek begi onez ikusten zutena, euskarari aintzinatean ematen zioten headurarekin nahiko ondo zetorrelako. Baina dudarik gabe Alemaniako jakintsuak eta hizkuntzalariak ziren ahaidetasun horren alde bere burua gehien agertzen zutenak: hauen artean G. Bähr-ek bere maisutzat zeukan H. Schuchardt hizkuntzalari azkar eta itzal handikoa, batez ere.

G. Bähr-ek liburu honetan, ordu arte eman ziren arrazoi eta argudio guztiak miastu eta aztertu ondoren, erakusten diguna zera da: askotan aipatutako euskara eta iberieraren arteko ustezko parekotasunak uste ustelak baino ez dira eta, ondorioz, ez dagoela batere frogatua hainbeste aldiz aldarrikatu izan den hizkuntza bien arteko ahaidetasuna. Ondorio honetara heltzen da Bähr eta hauxe da, hain zuzen ere, bere tesiaren muina. Ikusirik garai hartan gehienek ahaidetasun horretan sinesten zutela, frogatzen ba zen tesi horretarako erabiltako argudioak ustelak zirela, ateratzen zen ondorioa berez zetorren: euskara genetikoki, hau da bere jatorriari dagokionez, isolaturik dago, bakarrik dago, munduko hizkuntzen artean.

K. Boudak ez du euskararen isolatasunean sinisten, baina Bähr-en liburua ezin hobea go datorkio indarrean zegoen basko-iberieraren teoria birrindu eta honen ordez berak uste zuena jartzeko orduan. Irakur ditzagun haren hitzak: “Nire adiskide den [René] Lafon jaunak eta biok alor zail hau berriro ere jorratu dugu, eta gaur esan dezaket euskarak kaukasiar hizkuntzekin duen ahaidetasuna gauza frogatutzat eman daitekeela” [2. or.]. Hemen ikusten dugu, hitz gutxitan esanda, XX.mende honetan zabaldu den beste teoria, eta funtsean euskararen eta Kaukasoko mendien inguruetan hitz egiten diren hizkuntzen arteko ahaidetasuna aldarrikatzen duena. Basko-iberismoa baino berriagoa da eta, hura ez bezala, ondo irakurri eta ulertzen diren hizkuntzen gainean eraikia. Beste gauza bat da, zeharo desberdina, aldarrikatzen den ahaidetasun hori, Boudak zioen bezala, ‘frogatutzat eman daitekeen’ ala ez. Badakit hizkuntzalari batzuk oraindik ere teoria horretan sinesten dutela, eta esan behar da georgiarrak beti izan direla gu baino askoz ere siniskorragoak, behar bada bere hizkuntzalaritza tradizioan tipologiak eta hizkuntzen egituren ikerketak beti izan duten pisu handiengatik.

Urte asko pasa dira Bähr-ek bere tesia aurkeztu zuenetik, baina bateon-batek galdetuko balit niri, eta zu zeinekin geldituko zinake: Bähr-ek proposatzen zuenarekin edo Bouda-k garbi pentsatzen zuenarekin? Bada, dudarik gabe, Bähr-ek esaten zuenarekin. Hau da, beste hitzen bidez esanda, euskara isolatua dagoela munduko hizkuntzen artean. Honek zer esan nahi du? Euskara gene-

tikoki isolaturik dagoela esatean ez diogu euskarari berari ezer gaiztorik ez onik leporatzen, ez eta ere euskararen beraren akatsik edo ahuleziarik onartzen, haren aztarnak aztertzekoan gure ahulezia eta ezina baizik. Esaten den bakarra zera da: ez diogula oraindik ahaiderik aurkitu, nahiz eta horren atzetik ibili. Eta hori da hain zuzen ere Gerhard Bähr-ek esaten zuena.

Aurreratu dugu lehenago nola egilea liburu honetan orduko ideia nagusiaren aurka joan zela: hau da, oraingo euskara aintzinako iberieraren ondorengo bat zelako ideiarekin kontra. Lanbide horretan aurkeztu zituen argudioak hain zorrotzak izan ziren, non harrezkeroz inork ez du defendatu, —lehenago arrazoibide berberak erabiliz—, hizkuntza horien arteko ahaidetasuna. Esan daitekeena da, baina hori beti esan daiteke, hizkuntza horien arteko ahaidetasuneza frogatuta ez dagoela, eta beste pausu bat aurrera emanez, litekeena dela ahaidadeak izatea. Ikertzaile batzuk gehiago sinisten dute ideia honetan beste batzuk baino eta uste dute egunen batean hizkuntzalariek oso azaleko eta batez ere izen propioen eremuan agertzen diren antzekotasunak gramatikaren eremu sakonetara eramango dituztela, orain uste hutsa baino ez dena froga argia bihurtuz. Baina garai horretara heltzen ez garen bitartean, gauzek Bähr-ek utzi zituen bezala diraute.

Eta nola ailegatu zen Bähr ondorio honetara? Horretarako, nik uste, bi edo hiru arrazoi egon ziren. Alde batetik, lehen aipatu den Alemaniako tradizioaren ildotik, obra erudito gehienak alemanieraz idatzita zeuden: Hauen artean, aipatzekoak dira Humboldt-ek euskarari eta Hispaniako aintzin toponimiari buruz 1821.an azaldu zuen liburutoa, Hübner-ek 1893.an argitaratu zuen iberiar iskrizioen bilduma (*Monumenta linguae ibericae*) eta Schuchardt-ek iberikoari eta aintzin euskarari buruz idatzi zituenak. Baina obra hauek guztiak garrantzi handikoak izanik ere, garai hartako hizkuntzalaritza alemaniarraren indarra metodoaren zuzentasunean datza, dudarik gabe. Osthoff, Brugmann, Leskien, Hermann Paul eta antzeko hizkuntzalarien izenek argi eta garbi erakusten digute Alemaniako unibertsitate gehinetan hizkuntzalaritza historikoaren eta gonbaratismoaren aurrerapenak zeharo onartuak zeudela. Espainian, Menéndez Pidal eta bere eskola salbaturik, oso atzeratua zebilen artean hizkuntza ikerkuntza.

Esaten dudan hau garbiago azal dedin, bi argibide aipatuko ditut. Bata toponimiari buruz zuen iritzia da. Denok dakigu toponimiazko azterketak teoria tradizionalaren punturik sendoenak zirela, leku izenen gainean eraikitzen zutelako teoria osoa, ontzat ematen baitzen —eta printzipio gisa ez du akatsik— leku izenak espaldi desagertutako egoera linguistiko baten lekukoak zirela. Hala abiapuntu honetatik abiatuz saiatu ziren bere hipotesi nagusia frogatzen, hau da, Espainian zehar aintzinatean euskara besterik ez zela egin. Apologisten lanak —eta Poza lizenziatuarena batez ere, bera izan baitzen gure artean metodo horren aintzindari eta erakusle hoberena— irakurri besterik ez daukagu azterbide horren mamiaz eta aritzeko moduaz ohartzeko. Bähr-ek metodo honen akatsak eta zailtasunak argibide baten bidez azaltzen ditu, *Cala-* erakusten duten leku izenak aztertzean. Aintzinatean *Calagurris* izeneko iri bat baino ge-

hiago ezagutzen dugu, zeini Galiziako *Caladunum* eta Akitaniako *Burdigala* gei diezazkiokegu. Gaur egunekoak, ostera, asko dira, hala nola, Calaceite, Calamocha, Calatrava, eb.; hauen artean ezagunenetakoa, Calatayud. Schuchardtek leku izen hauek guztiak batu egiten zituen, ontzat emanaz aintzinako *Cala-* eta oraingo erdal zatia *Cala-* euskarazko *Garagorri*-ren antzeko izenetan agertzen den euskal *gara-* ren ordainak direla. Bähr-ek, erakutsiz arabieraz *qala* hitzak “gaztelu” esan nahi duela eta *Ayud* ibai baten izena dela, izen osoak “Ayud ibaiko gaztelua”ren esan nahia duelarik, nahiko argi utzi zuen toponimiazko azterketek duten arriskua. Horrexegatik toponimia alde batera utzi behar zen eta, ahal zen neurrian, zuzenezko lekukoetara jo: hau da, monedetan, hilarri eta bestelako iskriizioetan aurkitzen ditugunetara.

Bigarren etsenpluztat euskararen aspirazioarena aipatuko dut. Badaki euskarak bere lekuko zaharrenetatik hasita aspirazioa *h* letraren bidez erakusten duela. Konturatzen da, —eta badirudi lehenengoa dela honetan— Akitanian agertzen diren aintzinako izenetan *H* letra oso arrunta dela, inguruko eremuetan ez bezala. Bestalde, ikusirik euskararen bertan, euskalki desberdinetako datuak bilduz, aldaerak daudela soinu honi dagozkion zenbait kasuetan, *hau*, *gau*, *kau* erakuslearen kasuan esate baterako, uste du *H* soinu hau beste soinu zaharrago batetik etor daitekeela. Honek guztiak erakusten dio ezin daitezkeela *h-* dun eta *h-* gabeko hitzak modu berean tratatu iberierarekin gonbaraketak egiteko orduan. Bähr-ek ez zukeen inoiz ere Alcoy-ko iskriuzio ezagun batean agertzen den *bios-* hitza euskarazko *bihotz* hitzarekin lotuko, Anderson-ek orain urte asko ez duela lotu zituen bezala.[Nahi duenak ikus beza Anderson-en liburuari *Veleia* aldizkarian (6, 1989, 306 or.) egin nion erreseina]

Bigarren arrazoitzat, —hau ere nahiko garbi ikusten dena— euskararen ezaguera sakona aipa dezakegu. Beste batzuk, nik baino hobeto, azaldu dute Bähr-en lana euskararen alorrean, batez ere dialektologiaren sailean: hasteko bere idatzlan eta eskutitzetan ikus daiteke zein ondo ezagutu eta menderatzen zuen euskara, gero Triple Cuestionario delako horren betetze lanak euskal lexiko eta gramatikaren zenbait puntu argitu zion; bestalde irakurriak zituen Schuchardt kutunaren obrak ez eze, Gavel eta Uhlenbeck-enak ere. Arrazoi horregatik bazekien gonbaraketak egiteko momentuan zeintzuk ziren onak eta zeintzuk ziren txarrak. Gezurra badirudi ere, badago jenderik hor zehar munduan uste duenik euskararen jatorriaren inguruan zerbait esateko ez dela premiazkoa euskara bera jakitea. Eta harrigarriena zera da, horietako batzuk ez direla amateur hutsak, unibertsitateko nominatik kobratzen dutenak baizik. Bähr-en kasuan ikusten dugu nola batu zituen bi jakinduri diferente, bata euskararen ezaguera sakona eta bestea hizkuntzalaritzan erabiltzen ziren metodo hobereen manaiatzea.

Azkenik *Baskisch und Iberisch* tesia edo liburua ez zatekeen idatzia izango, berorren egilea gizon irakurria izan ez balitz: alemanen obrak ez ezik espainolenak ere irakurriak zituen. Arkeologoenak, esate baterako Bosch Gimpera-renak edo Adolf Schulten-enak. Schulten arkeologo eta historigile

alemana zen, baina espainolez asko publikatu zuena. Espainian Numanciako iri zaharra lurrazaleratu zuen eta zeltiberoei buruzko iturri guztiak aztertu eta argitaratu. Baina obra hauen guztien artean, Gómez Moreno-renak izan zuen, du-darik gabe, eragin sakonena Bähr-en —eta ondoren eginkizun hauetara dedi-katu zirenen— ikerketetarako.

Gómez Moreno-k 1923.an Menéndez Pidali eskainitako omenaldian parte hartzen du eta hor iberiar idazkeraren deszifrapena ematen du. Kontuan eduki behar da iberiera iskrizio batzuren bitartez ezagutzen dela batez ere, eta iskrizio hauek ez daudela latin grafian idatzita, baizik eta letra berezi batzuetan. Ez dago zer esanik letra edo zeinu horiek betidanik atentzio ikaragarria erakarri dutela, baina artean ez ziren ondo irakurtzen. Zeinu gutxi batzuren gainean, hala nola bokalen edota zenbait sudurkari edo likidaren gainean, adostasuna zegoen, baina herskarien baloreak ez zeuden inolaz ere ondo finkatuta, eta Hübner-ek lehen aipatu dugun *Monumenta Linguae Ibericae* liburuan ematen dituen baloreak gehien erabiliak izan arren guztiak konturatzen ziren sistema horren barne-kontraesanez eta ahuleziaz. Zeinuak irakurtzeko modu asko zegoen eta, egoera horietan sarritan gertatzen ohi denez, nork bere irakurketa egi-ten zuen bere hipotesiaren frogagarri.

Gómez Moreno izan zen, beraz, iberiar idazkeraren sistema deszifratu zue-na. Kontua da, Gómez Moreno-ren artikulua hori, nahiz eta oso inportantea izan, inork ere, Bähr izan ezik, ez zuela aintzakotzat hartu. Egia da, idatzlanean ber-tan aurki daitekeela erantzunezaren arazoia, ezen Gómez Moreno-k ez bait zuen bere proposamena inondik ere argitu edo azaldu, bakarrik huts-hutsean eman zuen eta kito. Hori, Bähr-ek berak tesiaren kapitulu oso inportante baten hasieran, iberiar idazkerari eskaintzen dion atalean hain zuzen, aipatzen du: “iberierari buruzko ikerketa idazkerak sortzen duen arazoaren menpe egon da beti eta halaxe da neurri handi batean orain ere. Arazo larri honetan sartu nahi dut, zeren Hübner-en obra klasikoa ‘*Monumenta Linguae Ibericae*’ —bestalde Delgadoren obrari irakurketarik seguruenak zor dizkiona—, 1893.an argitaratu zenetik benetako aurrerapausua eman da Gómez Moreno-ri esker, baina kon-tuan harturik honek zeinuen balore hutsak ematen dituela soilik, inongo azal-biderik eman gabe (Homenaje, 484 or.), sistema honen jatorria eta garapena argitzen saiatuko naiz ni hemen” [45 or.]. Eta hasten da atal horretan iberiar idazkeraren azalpen zehatz zehatza ematen, Gómez Moreno-k eman ez zuena. Aldatuko dut hona Gómez Moreno-ren zatia garbiago ikus dedin zer nolako estilo ilun eta konzeptista erabiltzen zuen: “Tocante a lo escrito con letra ibé-rica, ciertas monedas, las estelas que parecen ser epitafios, arrojan palabras con apariencia de nombres personales. Con las reservas precisas aquí van los más probables, pero ya que no sea cómodo presentarlos sino transcritos, valga in-cluir además por comprobante un esquema del alfabeto silabario en cuestión, sin pretender colacionarlo con el tartésico cuyos valores se mantienen a mi juicio casi inciertos. Así resultarán si no justificadas una por una las transcrip-ciones subsiguientes, que esto sería faena muy larga e inoportuna para el caso,

a lo menos comprensibles las diferencias grandes introducidas respecto al sistema Delgado-Hübner hoy en boga...” eta zeinu guztien balorea ematen du segidan baina inongo azalbiderik gabe. Hau, esan bezala, 1923.an argitaratua izan zen; gero monarkiaren azken urte latzak, errepublika eta gerra etorri ziren, eta hemengo ikertzaileek ez zioten bere lanei berriro ere ekin gerra amaitu ez zen arte.

G. Bähr-ek Gotingako unibertsitatean aurkezten du bere tesia 1940an. Gero, 1940-tik 1945-erainoko urte horietan Alemaniako armadan hartzen du parte, antza denez, eta Berlinen desagertzen da, 1945.ko maiatzean, errusiarrek iria menperatzen dutenean. Espainian, gure gerra amaitu orduko, Caro Baroja hasten da gauza hauetara dedikatzen, eta 1942-43.an *Emerita* aldizkarian artikulua oso garrantzitsu bat argitaratzen du, “Observaciones sobre la hipótesis del vasco-iberismo considerada desde el punto de vista histórico” izenburua daramana. Hiru urte beranduago, 1946.an hain zuzen, Gómez Moreno-ren proposamenaren ildotik jarraituz iberiar idazkeraren deskripzio zehatza eta sistematikoa egiten du. Noski, Caro Barojak ez du Bähr-en tesia ezagutzen, bi urte beranduago, 1948.an, argitaratua izango delako. Historia honek guztiak erakusten digu nola jendea, bakoitza bere aldetik, iskrizio iberiarrak Gómez Morenoren metodo berriarekin irakurtzen hasten denean, gutxienez hiruzpalau pertsona bat datozela bere irakurketa eta azalbieetan: hor metodoaren zuzentasun eta emankortasunaren frogarik ezin hobea! Baina azpimarratu egin behar da, aurkikuntza horri etekin iraunkorra atera zion lehenengo Bähr izan zela.

Eta hori hala da, berak azaltzen digulako lehenengo aldiz aintzinako hizkuntza paleohispanikoei buruz gero guztiok onartu dugun zatiketa garbia. Irakurketa arazoak tratatu ondoren, esaten du: “Eta honekin uste dut iberieraz mintzatzen ziren ekialdeko eta Ebro haraneko tribuen eta zeltaz egiten zuten mesetako biztanleen artean bereizketa argi eta garbi bat zegoela frogatu egin dudala” [103 or.]. Iberiera idazkeraz idatzitako testu guztiak irakurri eta aztertu ondoren gauza bat ateratzen zen garbi: han hizkuntza baten lekuan gutxienez bi hizkuntza zeudela. Alde batetik, iberiera, beti uste izandako iberiera, eta bestetik hizkuntza zelta bat, inork ere han zegoenik uste ez zuena. Eta horregatik, hain zuzen ere, 1907.an, Schuchardt-ek atera zuen “Iberische Deklination” izendaturiko artikulua inportantean eraiki zuena bertan behera jausi zen, inongo balorerik gabe gelditu zen, Bähr-ek oso garbi erakutsi zuelako Schuchardt-ek bere proposamenerako erabili zituen datuak bi iturri zeharo desberdinetik zetozela, erabilgaitzak ziren datuak nahastuz.

Uste dut esandakoarekin obraren garrantzia azpimarratu dudala. Esan beharra dago, hemen azaldu dudan tesi nagusi horren inguruan, beste puntu inportante asko ere tratatzen dituela eta batzuk oraindik ere indarrean daudenak, edozeinek defenda ditzakeenak. Alde batetik, Akitanian agertu ziren pertsona izen eta jainko-jainkosa izen propio horien eta euskal izenen arteko harreman estua frogatu zuen, nahiz eta aurretik zetorren tradizio bat ere egon. Bestetik euskara eta zeltaren arteko harremanak ere ikutu eta aztertu zituen. Uste zuen

Akitaniako hizkuntza hori hizkuntza mixto edo nahasi bat zela, euskara eta zeltaren arteko nahasketa bat. Horretarako argumento batzuk eman zituen eta esan liteke ideia horiek duda-mudakoak direla, baina harritzekoa da bestalde Kimika, Espainiera, Frantsesa eta Inglesa estudiatu zuen batek, euskara aparte utzita, nola menperatzen zituen grafia kontuak, aintzinako iturriak, hizkuntza zeltetako datuak, eta horiek guztiak zein juizio onarekin tratatzen zituen.

Tamalgarria izan da benetan Bähr-en tesi honekin gertatutakoa, postumoa izateaz gain alemanieraz idatzia izatea. Berrogeita hamar urte beranduago bada ere, ez litzateke alperlana izango ikerlan zoragarri hori euskaldunok ezagutzen dugun hizkuntza batera itzulia balitz. Hala bedi!